



2. PLAZAKOETXE: HISTORIAK GERRA ZIBILEAN EMAKUMEEI BURUZ KONTATU EZ DUENA

Galdakao toki garrantzitsua zen gerrako industriarentzat, 'La Dinamita' lantegia bertan zegoelako kokatuta. Horrez gain, Burdinazko Gerrikoak udalerrria zeharkatzen zuenez, helburu ere bihurtu zen. Gerra zibilean, soldadu faxisten 28 aire-bonbardaketa jasan zituen arren, 1937ko maiatzaren 19koa izan zen odoltsu eta zoritxarrekoena. Egun hartan, Plazakoetxeko babeslekuko sarbidean zenbait bonba erori zirenez, bertara babes bila joandako 16 lagun hil ziren, emakumeak eta neska-mutilak tartean. Garaiko erregistroetan, ordea, hildakoak agertzen dira apirileko bonbardaketatik urte horretako uztailaren erdialdera arte, hau da, armada frankista herrian sartu zen arte. Eraso horietan guztietan, 40 giza bizi galdu ziren, eta gehienak Galdakaoko biztanleak ziren.

Bizilagunen erdiak emakumeak badira ere, sarritan badirudi ikusezinak direla. Gizonak, ordea, lehen lerroko protagonistak dira. Gerra zibilean ere, berbera gertatu zen. Gizonak frontera joan ziren borrokatzera, armak sorbaldan zeramatzatela. Emakumeak, osterak, semeak, nebak, senarrak eta ilobak agurtu ondoren, etxea eta familia zaintzen geratu ziren. Frontean gertatutakoari buruzko informazio ugari dagoen arren, zer gertatzen zen erretagoardian? Ez dakigu gehiegi emakumeek nazionalen esku pairatutako zapalkuntzari buruz: mehatxuak, bortxaketak... Ia-ia kaskamotz utzi arte moztzen zieten ilea, eta errizino-olioa edatera derrigortzen zituzten, beheranzkoa sorrarazteko. Horren ostean, herriko kaleetatik oinez ibiltzera behartzen zituzten. Era berean, beste zigor batzuk ere jasan zituzten, haien duintasuna suntsitu nahian. 1936an, emakumeak gerrako armak izan ziren, gaur egun munduko beste gatazka batzuetan gertatzen den bezalaxe.

Historia garaileek idazten omen dute, eta gizonak dira beti. Ikarak eta lotsak emakumeak isilarazi zituzten, eta euren egia azaldu gabe desagertu ziren. Zapalkuntza gehiago jasan zituzten Galdakaon? Ez zituzten espetxeratu? Ez zen zigorrik egon? Badakigu emakume askok zigorrak pairatu zituztela, eta badute izenik: Felisa, Teresa, Ramona, Juana, Rosario, María, Venancia... Emakume ikusezin



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK

EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

eta ahaztuen oroimena berreskuratu behar dugu, justizia eta konponketa zor dizkiegu. Emakumeak funtsezkoak izan ziren gerran, herriak haien ardurapean geratu ziren, lan guztiak hartu zituzten euren gain eta batzuk frontearen borrokatu ziren. Haien lana, ordea, ez da inoiz aitortu, eta emakume heroiei askoren hitza betiko geratu zen lurperatuta bonben eta beldurraren azpian.

Bazenekien...

Nazio Batuen esanetan gatazka-guneetan neskek mutilek baino aukera gutxiago dutela hezkuntza eskuratzeko orduan. Haur-ekontzen, esklabu-lanaren edo neska soldadu gisa erreklutatuen biktima dira.

Etxeko lanek, beren mugikortasunari ezarritako murrizketa sozialek eta beste faktore batzuek eragiten dute askotan ihes egiteko gaitasun txikiagoa izatea biztanleria zibila erasotzen dutenean.

Askoren egoera desplazatu edo errefuxiatu bilakatzen da, nahiz eta pertsonen trafikoa eta sexu-esplotaziorako tratua moduko arriskuen aurrean egon.

Atxilotuek edo espetxeratu daudenek askotan izaten dute generoan oinarritutako torturak jasateko arriskua, hala nola bortxaketa eta bestelako sexu-abusuak, bai zaintzaileen, bai beste presoek eskutik.

MI(cro)RELATO

Siempre presentes

Me detengo al ver jugar a la pequeña Laia junto al monolito de la memoria y vienen a mi mente historias de mujeres acontecidas durante la guerra del 36. Los hombres en primera línea, ellas en la retaguardia, fuertes y sencillas al mismo tiempo. No escatimaron esfuerzos para que todo funcionase, para que todos estuvieran bien. Algunas cosían ropa para el frente, otras trabajaron como dinamiteras, además de atender a niños y a ancianos, a animales y huertos. Cada una aportaba lo que sabía. A pesar de las pérdidas humanas, de la escasez de alimentos o bienes requisados, de los comportamientos indignos del invasor, sostuvieron la moral del pueblo y procuraron refugio físico y emocional vital.

Porque fueron, somos. Porque somos, serán.

Conchi Ruiz Herrero